

p

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria
2018ko abendua · 346 alea

TOKIKOM

GABONAK

**OPARIAK, JAIOTZAK ETA
ARGIAK BAINO GEHIAGO**





PIL-PILEAN 346

2018ko abendua

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi

Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Bea Akizu
 - 6 **Begira** Atxolingo jaiotza
 - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
 - 14 **Argazki bidez** 'Soraluze atzo eta gaur'
 - 18 **Erreportajea** Bihurrikeriak ala hori baino gehiago?
 - 22 **Kirola** Futbol Eskolako Gabonetako torneoa eta San Silvestrea
 - 24 **Kultura** Gabonetan zer
 - 26 **Nondik nora** Soraluzetik Milanera
 - 28 **Sakonean** Cristobal Colon eta Sorapedia
 - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
 - 3 **Neuretik** Martin Azkarate *Espazio publikoa eta boterea*
 - 16 **Gutunak**
Soraluzeko Sare *Sabin Euskal Herrira*
 - 16 **Hausnarketa** Gabonetako argiak
 - 17 **Zir(r)ika** P.G.
 - 17 **Puntua** Ane Osoro *Sublimea*



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaltzaleen
Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa

Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus
Zuzentzailea
Leire Ginea

Diseinua

Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)
Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:

Gertu Koop.
Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena
Lege Gordailua:
SS-537-2000
Tirada: 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZKO
UDALA**

Espazio publikoa eta boterea



MARTIN AZKARATE

Badira hilabete batzuk espazio publikoari buruz hainbat kezka dauzkadana. Bada garaia gaiari ganoraz heldu eta helburuak zehazteko. Hasteko, herri hau norentzat egin nahi dugun pentsatu beharko genuke. Gai honen inguruan begira hasiz gero (Tonucci handia!), gaur egun herriak kotxedun gizonezkoentzako diseinatuta daudela ikus daiteke, horiek dute boterea espazio publikoan. Nire kezka da ia gu ere ez ote garen hortatik urruntzeko aukerak galtzen ari. Norabide gabeko erabakiak ikusten dira, ez dago garbi zelako Soraluze duten helburu. Hezkuntza proiektuak bultzatzen dituen balioez harro sentitzen gara (hori ematen du behintzat). Pozik gaude “eskola bidea” bezalako proiektuekin, baina aldi berean ezinezkoa egiten zaigu herriaren erdigunea nolabait “blindatzea” kotxearekin gora-behera eta ezker-eskuin ez ibiltzeko. Gehiegizko norabide aukerak eta erabilera txarra, biak jarri genitzake jomugan. Zelako segurtasuna sentitzen du oinezkoak erdiguneko kaleetan? Aldapan zer esanik ez. Eta oinezko hori haurra bada? Bistaz edota bestelako dohai fisikoz justu badabil? Garrantzitsuena, zenbat kostatzen zaio kotxedunari hori dena saihestea?

Orain herri-galdeketa daukagu autobus geltokiaren kokalekuari buruz eta badira detaile kezkarri batzuk. Gaur egungo geltokia inondik inora ezin bada irisgarritasun legeen barruan sartu (batzarrean hori esan zen behin eta berriz), nola izango da orain aukeretako bat?

Zer esan Baltegiatako aukeraren inguruan. Bestela ere zalantza ugari sortzeaz gain, puntu beltz garbi bat den leku bat izan al daiteke aukeretako bat? Esaterako, azken egunetan herriko hainbat leku markatu ditu Korner Morea Soraluzeko talde transfeministak puntu beltz moduan; horietako bati zentralitatea ematea aukera bat al da?

Ez dakit dena den zilegi parte-hartzearen izenean.

Hasi beharko genuke nolako Soraluze nahi dugun irudikatu eta erabaki ausartak hartzen. Adibide batzuk besterik ez dira, herri erditik aterata askoz gehiago daude. Boterean dago gakoa, ez dakidana da hori galtzeko prest gauden.

**"GAUR EGUN HERRIAK
KOTXEDUN
GIZONEZKOEN
DISEINATUTA DAUDELA
IKUS DAITEKE"**

Beatriz Akizu

EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: EUSKO IKASKUNTZA.

Beatriz Akizu (Soraluze, 1969) Eusko Ikaskuntzako soziopolitika arloko koordinatzailea da. Azken hilabeteotan, buru-belarri jardun du erakundearen mendeurreneko kongresua prestatzen. Itziarren bizi da, baina benetan A8an bizi dela dio Euskal Herriko mutur batetik bestera..

Badira urte batzuk Soraluzetik kanpora bizi zarela? Bai, 23-24 urte herritik kanpora bizi naizela. Gaur egun Itziarren bizi naiz, baina beti esaten dut Plazentziakoa naizela. Egia esateko, gaur egun A8an bizi naiz.

Eusko Ikaskuntzako lanak eskatuko dizu mugitzea... Bai, bere garaian musika irakasle ibili nintzenean ere asko mugitzea tokatu zitzaidan ere eta aukera izan nuen Euskal Herria ezagutzeko eta, orain, Eusko Ikaskuntzak ere aukera hori ematen dit. Lurraldetasuna lantzen dugu eta hor nabil Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldean, batez ere, Lapurdin.

2008an, urak lasaiago joango ziren orain baino... Garai hartan urak txepelak eta erakunde batean urak txepel daudenean peligrosoa izaten da. 2012-2013 bitarte horretan erakundea goitik behera aldatu zen. Aurretik akademia klasiko baten ereduari jarraitzen zion, baina ja ez zion erantzuten bere sorrerako misioari; euskal gizarteak dituen beharrak eta premia kondo identifikatu eta horiei erantzuteko proposamen berritzaileak eskaintzea.

Gaur egun, zertan dihardu Eusko Ikaskuntzak? Gure helburua da herri-proiektu bat martxan jartzea Euskal Herri osoko markoa kontuan hartuta. Egoera ezberdina da toki bakoitzean kultura, erakundetze eta eskumen-maila, egite-modu eta ikuskera aldetik. Dagoen inteligentzia guzti hori konektatzea eta behetik gorako prozesua abian jartzea da gure egitekoa eta horretan dihardugu orain dela hiru urtetik.

Ze emaitza eman du Geroa Elkar-Ekin kongresuak? Gure leloa izan da 'etorkizuna

izango dela nahi dugun hori' eta horretarako elkarrekin lan egin behar dugu ezberdinen artean. Ez dugu kontzentsua bilatu nahi izan, ideia desberdinak, kontrajarriak askotan, jasotzea eta metatzea bilatu dugu, zoru komuna identifikatzeko. Hasieran adituekin egindako diagnostikoa herritarrekin eta eragileekin partekatu dugu. Identifikatu ditugu eszenatoki faktibleak eta agenda proposamena. Politikari batek esango luke hau bide konstituziogile bat dela.

Gizarte mugimenduak indartsu dihardute, zuek konektatu egin nahi duzue guzti hori? Bai. Hori da zor dioguna euskal gizarteari. Euskal gizartea aktibatuta dago, ezagutza izugarria dauka eta gainera hemen badago auzolanerako ohitura, falta zaiguna da konektatzea eta behetik gorako mugimendu horrek eragitea erakundetzean. Herri mugimenduek sortzen dituzte errealitatea interpretatzeko modu berriak, feminismotik adibidez, eta hori da behar duguna gure erakundeak berritzeko, gobernantza eredu berriak sortzeko, erakundetze prozesu berriak sortzeko. Eusko Ikaskuntzak lagundu nahi du Euskal Herri osoa josiko duen begirada bat sortzen.

'Gobernantza eredu berria' aipatzen duzue. Globalizioak dakarren uholdearen aurrean, herri moduan sendo bagaude, gauza izango gara gure nortasunarekin erantzuteko. Behar dugu kultura politiko demokratiko bat garatzea etorriko zaigun aintzasun guzti horri erantzuteko. Politikariek erraz dute. Erantzunkizuna guztiona da. Ireki bideak prozesu parte hartzaileen bidez eta ziur topatuko ditugula moduak etorkizuneko proiektzioak irudikatzen.

Zerk trabatzen gaitu? Orain gauden aro aldaketa honetan, erakundeak eta botere-harreman horiek kontrolatzen dituztenek beldurra daukate eta beldur horiek kudeatzen lagundu behar diegu. Ahalbideratu behar dugu herritarrek parte hartzea eta interpelatuta sentitzea.





Atxolinen da jaiotza

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Iaz hartu zuten erreleboa nagusiangoengandik eta aurten ere eroan dute jaiotza kristaua Atxolin puntara.

Inmakuladako zubia aprobetxatu zuten horretarako: lagun koadrila elkartu, metalezko etxea bizkarrean hartu eta igeltsuzko figuratxoekin mendi-puntan jaiotza osatzeko.

Niko Mendiaren esanetan: "Kristauon ohitura da gabonak ospatzea eta ohitura polita da hori iragartzeko mendian jaiotza jartzea".

Lanak amaitu ostean, haimaiketako ederra egin zuten Urkiazelaiko txabolan, hori ere ohitura kristaua baita.

Erregeak pasatu ostean erretiratuko dute jaiotza.

GAZTEAK
12-16 URTE
MUSIKA
ALDIZKARIAK
KOMIKIAK
LIBURUAK

KATALOGOEA

0-12 URTE

EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOEA

WWW.KATALOGOEA.EUS

MUSIKA
APP-AK
DVD FLMAK
KOMIKIAK
GURASOENTZAKO MATERIALA
LIBURUAK
JOSTALU ETA JOKOAK

SORALUCE

Asmo sendoa

SORALUCEn bat egin genuen Euskararen Nazioarteko Egunarekin (abenduak 3). Egun osoko egitarau xumea prestatu genuen, eta giro berezia izan zen gurean, eguerdian ateratako talde argazkian ikus daitekeen bezala.

EUSKARALDIA ekimenaren azken eguna izan zen; egun berezia BELARRIPREST edo AHOBIZI txaparekin lanean aritu garen SORALUCEko kide askorentzat. Aurretik ere entrenatuta geunden molde honetan, izan ere, urrian, astebetetz, gure EUSKARALDI propioa egin baikenuen DANOBATGRUPEko gainerako kooperatibekin batera, partehartze eta balorazio oso positiboarekin.

SORALUCEn ia 20 urte daramatzagu lan munduan euskara normalizatzeke ahaleginean, eta aurrerantzean ere asmo sendoa dugu etorkizuna euskaraz eraikitzen jarraitzeke.

Osintxun, 2018ko abenduaren 4an.



www.soraluce.com

"Trantsizioko" aurrekontua

4.635.290 euroko aurrekontua izango du Soraluzek 2019rako. Udal Gobernuaren (EAJ eta PSE-EE) aldeko sei botoekin eta EH Bilduren kontrako bostekin onartu zuten eguazteneko osoko bilkuran.

4.635.290 euroekin, iazkoa baino %9,37 txikiagoa den aurrekontua izango du udalderriak 2019rako. Hauteskunde urtea izanda, "trantsiziokoa" da, behar eta eskari "premiazkoenei" erantzuteko helburua duena, Iker Aldazabal alkatearen esanetan. Aurten mailegurik ez dutela eskatuko ere azpimarratu zuen, ez diotelako "hipotekarik" laga nahi etor litekeen gobernu berriari.

Abenduaren 19an, eguaztenean, onartu zuten aurrekontua osoko bilkuran, oposizioaren kontrako botoekin.

Batzarrean azaldutakoaren arabera, kopurua jaisteko arrazoia da inbertsioak %63,61 gutxitu dituztela: 347.290 euro daude aurreikusita; iaz, berriz, 954.451 euro baliatu ziren. Alkateak zehaztu zuen iaz izan zutela inbertsioetarako kopururik potoloena.

Horiei dagokienaz, "azterketa sakona egin" eta "herritarren eskaerak" entzun ondoren, lehentasunezkoak dira Udal Gobernuarendako kiroldegia, haur parkeak, Sologoen, musika-eskola eta dolmenen ibilbidea.

Beste lehentasun batzuk

EH Bilduk, berriz, aurrekontuari buruz oso bestelako irakurketa

egin zuen. Salatu zuen Udal Gobernuak lehentasunak konpartitu ez zituenez, oposizioa kanpoan laga dutela aurrekontua lantzeko, eta gainera, euren ekarpenak ez dituztela onartu. Bestalde, oro har, azpimarratu du nahiz eta diru-sarreretan zifra errekorretan ibili, "poltsikoan" diru gutxiago izango dugula

Inbertsio nabarmenenak

Inbertsioen artean, handiena kiroldegira bideratuko dute: 100.080 euro, honela banatuta: 50.000 euro igerilekuko hezetasuna kentzeko makina erosteko, zaharra izorratu egin da; 47.810 euro kiroldegia handitzeko obren ikuspegi teknikoetarako eta 12.000 euro eraikinaren handitzetik sortuko diren lokalak egokitzeko. Horrez aparte, lehentasun izango dira Udal Gobernuarendako ere haur parkeak, Sologoen eta Musika Eskola, besteak beste.



Kiroldegia.

inbertitzeko. Eta arriskutsu ikusten du hori beste krisiren bat baletor, esaterako.

Gainera, ez dute konpartitzen Udal Gobernuak lehentasunei buruz duen irakurketa. Kiroldegia handitzeko Diputazioak emango dituen 250.000 euroak beste behar batzuetarako erabiliko lituzkeela azpimarratzeaz aparte, adierazi zuten "ahoz agindutako" laguntza horren berririk ez dutela izan. Bestalde, inbertsio gehigarria eskatu zuten, besteak beste, herriko langabeziaren arazoari buelta ematen laguntzeko.

Aurrekontuaren bueltan, baina, eztabaidarik luzeena udal ordezkarien soldatek eragin zuten, oposizioak alkatearena mahai gainean jarri ondoren. (Informazio osoa: Plaentxia.eus).

**MAILEGURIK EZ DUTE
ESKATUKO, EZ
DIOTELAKO LAGA NAHI
"HIPOTEKARIK" UDAL
GOBERNU BERRIARI**

Lokalizazio bila 'Patria' grabatzeko

Euskal Herriko hainbat puntutan grabatuko dute telesaila, eta asteak daramatzate Soraluze ikuskatzen zati handi bat bertan egiteko.

Patria, Fernando Aranbururen eleberria zortzi kapituluko telesail bihurtuko du HBO Españak. Eta oraindik ofizialki baieztatu ez duten arren, Soraluzek aukera handiak ditu telesailaren kokaguneetako bat izateko. Ez edozein kokagune gainera, liburuiko protagonistetako bat den Bittoriaren jaioterria izateko dabilza Soraluze ikuskatzen.

Badute Udalaren baimena

Hain justu ere, asteak daramatzate Soraluzeko hainbat etxe, taberna, eliza, kale eta puntu aztertzen, Patria telesailaren balizko kokaleku izateko. Soraluzerekin batera, Euskal Herriko eta atzerriko bestelako kokaleku batzuk ere badabilza aztertzen, eta grabazio guztiak non egingo dituzten erabaki arte, ez dituzte haien izenak jakinaraziko.

Edozein modutan, Soraluzeko Udalean dagoeneko eskatu dute udalerrian grabatzeko baimena, eta baita eskuratu ere, aho batez, udal ordezkari guztien aldetik.

Horrez aparte, Pil-pileanek jakin izan duenez, abade etxea behin baino gehiagotan bisitatu dute, badabilzalako aztertzen berau izatea Bittoriaren etxebizitza. Eta herriko hainbat tabernatan ere galdegin dute bertan grabatzeko aukeraz, eta ezezkoren bat ere jaso dute alde horretatik.



Eleberriaren azala.

Elena Irureta eta Ane Gabarain

Jakinek da, hori bai, HBO Europek produzituko duen lehen telesail espainola izango dela Patria. Elena Irureta (Bittori), Ane Gabarain (Miren) eta Jose Ramon Soroiz izango dira, besteak beste, aktore, eta otsailean hasiko dute grabazioa, telesaila 2020an estreinatzeko asmoarekin. Alea Mediak produzituko du zortzi kapituluko telesaila, eta Aitor Gabilondo donostiarra egin ditu gidoiaren egokitzen lanak. Zuzendariak, berriz, Pablo Trapero eta Felix Viscarret izango dira.

Patria eleberria Fernando Aranburuk idatzi zuen, 2016an. Euskal gatazkan oinarrituta, berorren ondorioz elkarren kontra bizi diren bi familien istorioa du abiapuntu. Oihartzun mediatiko handia lortu du liburuak, baita sariak ere.

Asteburu pasa Danobaten eskutik

DANOBATGROUPEk Euskararen Nazioarteko Egunaren harira lehiaketa antolatu zuen, *Euskara aldean, erabili lanean* izenarekin. Eta lehiaketak baditu irabazleak: Edurne Bilbao eta Maier Leiaristi. Irabazleek bono bana irabazi dute, Euskal Herriko landetxe batean bi gaueko egonaldia egiteko.



Bilbao eta Leiaristi, bonoekin.

Sabin Mendizabal Logroñora

Sabin Mendizabal preso soraluzetarra Logroñoeko espetxera lekualdatu dute atzo eta gaur ostirala bitartean. Sabinekin beteta ditu zigorraren hiru laurdenak eta espetxe legedia onartu ostean, bigarren gradua ezarrita, Valladolidetik Logroñora ekarri dute, berak Arabako Zaballa espetxera ekartzeko eskatu arren.

Irisgarritasun arazoa aztergai

Plaentxi Herri Ikastetxeko sarrerarako arrapala eskatu dute hainbat gurasok, baina ikuspegi teknikotik ez dago espazio nahikorik.

Plaentxi Herri Eskolak duen irisgarritasun arazoa aztergai dute atzera ere Soraluzeko Udalean.

Gaur gaurkoz, eskailerak erabili behar dira eskolara sartu-irtena egiteko, eta hori saihesteko arrapala jar dezaten eskatu diote hainbat gurasok Soraluzeko Udalari. Hauxe azaldu digu Iker Aldazabal alkateak: “Arrapalarik ezin da ipini han, ikuspegi teknikotik ez dagoelako espazio nahikorik. Beste alternatiba



Eskolako sarrera. U.M.

batzuk ere badaude, igogailu berria ipintzea, adibidez, baina horrek inbertsio handia eta eskolaren barruko espazioen berrantolaketa handia eskatzen du: igogailuak irteera izan beharko luke solairu bakoitzean, eta bertan dauden komunak lekuz aldatu beharko liriteke, esaterako. Ez da batere erraza konponbidea, egia esan”.

Alboko sarreratik

Hala ere, alkateak jakinarazi du udal teknikariek gaia aztertzen segituko dutela. Eta bien bitartean, alternatiba modura, irisgarritasun arazoa duten pertsonak aukera izango dutela 09:00etan jantokiko sarreratik, igogailua dagoen lekutik, eskolara sartzeko, bertan dagoen udal langileak atea zabalduta.



UBANE MADERA

Euskararen Eguna ospatu zuten abenduaren 3aren bueltan eskolan

Koloreetako kartulinekin lagunduta, maila bakoitzeko ikasleek letra bana osatuta, Euskararen Eguna zioen mosaiko koloretsua egin zuten

Plaentxi Herri Eskolako ikasleek Abenduaren 3a ospatzeko. Ondoren, kantu tradizional eta modernoak abestu zituzten, euskara protagonista dutenak.

Wim Hof metodoa probatzeko saioa

Urtea indartsu hasten laguntzeko, Wim Hof metodoa elkarrekin praktikatzeko gonbita egin du Andoni Calles soraluzetarrak. Metodo hori probatu nahi duen edozeini zuzenduta dago hitzordua: urtarriaren 1ean, 11:00etan Etxezaharreko putzuan (Sagar Errekako putzuan) elkartu, eta Wim Hoff metodoaren arnasketak egin ondoren, bertan bainua hartuko dute bertaratzen direnek. Andoni Callesek berak egingo ditu gidari lanak.

Urriaz geroztik dihardu Andoni Callesek Wim Hof metodoa praktikatzen eta edozeini gomendatzeko modukoa dela uste du.



Luzaketa tailerlean diharduten taldeetako hainbat kide, urtea agurtzen.

Esperientzia-gelak datu ikusgarriak

Aurreikuspen guztiak gainditu ditu irailean abiarazitako esperientzia-gelak izandako harrerak eta jarraipenak.

Soraluzeko Udalak dagoeneko finkatu du 2019ko aurrekontuan 5.000 euroko partida aurten estreinatu den esperientzia-gelak aurrera jarrai dezan. Datu ikusgarriak eman ditu orain artekoak: azarora bitarteko ekitaldietan 132 lagunek parte hartu dute. Patricia Borinagak, Gizarte Ongizate Saileko arduradunak, nabarmendu du ekimena arrakastatsua izan dela nagusiek eurek erakutsitako gustuen eta interesen arabera antolatatu direlako: "Izan ere, Pertsona Nagusiak Ahalduntzeko Taldearen bitartez helarazi diete horien berri (Alkarri elkarteok, Mesedeetako egoitzakoek, Eguneko Zentrokoek eta Itxaropenakoek osatutako taldea da). Bestalde, esperientzia-gelaren bultzadari esker lortu da gauzatzea Ongizate Sailaren

aspaldiko nahietako bat: Itxaropena udal gunea biziberritzea, hainbat motatako jarduerak eginez".

Asmo berriak

Horren guztiaren adibide modura, Borinagak jakinarazi du emozioei buruzko tailerra errepikatu egingo dutela urtarrilean, azaroko tailerlean parte hartu nahi zuen lagun kopuruak gainditu egin zuelako muga. Horretaz gain, datorren urteko jardunerako dagoeneko aurreikusi dute sare sozialak gaineko lantegi bat, sukaldaritzari buruzkoa. Gainera, esperientzia-gelaren baitan, Itxaropenatik kanpo egiten diren ekitaldiek ere harrera ona izan dute: luzaketa-tailerlean, adibidez, 30 bat lagunek dihardute parte hartzen.



Pandemonium 2017an.

Pandemonium eta Cuore Ibai dokumentalak antzokian

Urtarrilaren 12an, basamortura egiten duten elkertasunezko rallyari buruzko ikus-entzunezkoa proiektatuko dute antzokian: *Pandemonium*.

Zazpi urte daramatzate rally hori egiten. Eibartik abiatzen da, eta partaide ditu, besteak beste, Fernando Garcia soraluzetarra eta haren loba Antxon Garcia. Gainera, Soraluzeko Udalak ere laguntzen du ekimena. Horrela, Marokora abiatu aurretik, Soraluze bisitatzen dute, eskerrak eman eta basamortura eramango dituztenak erakusteko.

Pandemonium ikus-entzunezkoaren proiektioaren aurretik, *Grande Cuore Ibai* izenekoa emango dute, Garciaren esanetan "halako gaixotasunei ikusgarritasuna emateko. Eta dei egingo nieke 8-16 urte bitartekoei, bereziki, ikus dezaten, adibidez, badaudela eskolara joan ezin dutenak". Bi euro izango da sarrera.



Webgunea egunean hiru lau aldiz eguneratzen da .

Audientziak gora Plaentxia.eus-en

Azkenengo urtebetean Plaentxia.eus-en audientziak %33 egin du gora.

Pil-pilean herri komunikabideak urteko jardunaren balorazioa egin du. Interneteko datuei dagokionez, Plaentxia.eus-ek eta Youtubeko kanalak, %30 inguruko hazkundea izan dute bisitetan. Webguneari dagokionez, egunean, bataz beste, 500 bisitako langa gainditu da.

Audientzia datuak

Azken hiru urtoetan, bisita kopuruak gora egin du Plaentxia.eus-en. Abendutik abendura neurtutako bisita kopuruaren datuak dira ondorengoak:

- 2016: 116.449 bisita.
- 2017: 131.002 bisita (%12ko igoera 2016 urtearekiko)
- 2018: 196.866 bisita. (%33,5eko igoera 2017 urtearekiko).

Aldizkarian interakzioa

Aldizkariaren audientziaren daturik ez dago, baina irakurleen eta herriko eragileen interakzio-maila kontuan hartuta (zorion-agurrak, eskelak, jakinarazpenak...), jarraipenak gora egin dueelakoan daude erredakzio taldeko kideak. Gainera, adierazi dute azaroan hilabetekariari ezarritako diseinu berriak "harrera oso ona" izan duela.

Horrenbestez, erredakzioek "oso positibotzat" jo dituzte 2018an Pil-pilean Herri Komunikabideak lortutako emaitzak eta herritarrei eta publizitatea jartzen duten iragarleei "eskerrak" ematearekin batera, 2019an ere "ahalik eta profesionaltasun handienarekin lanean jarraitzeko asmoa" azaldu dute.

Albisterik ikusienak

2018an Plaentxia.eus-en ikusienak izan diren albisteak ondorengoak izan dira:

1. Aratosteetako lehiaketa (2907 ikustaldi)
2. Psikiatrikora eroan zuten gizonetzkoa (1745 ik.)
3. German Rodriguezen heriotza lan-istripuz (1259 ik.)
4. Gure Esku Dagoren giza-katea (1193 ik.)
5. I. Alejandro Rodriguez Memoriala (1183 ik.)
6. Gaztañerre azoka (1146 ik.)
7. Erresidentziako egoiliarren lasterketa (1121 ik.)
8. Bizikaleren moda desfilea (1028 ik.)
9. Jaietako musika jaialdia (970 ik.)
10. Iñaki Ruizen mendi-lasterketa (866 ik.)

Youtubeko bideoak

Bideoei dagokionez, ikustaldi kopuruak nabarmen egin du gora. Plaentxia.eus-en kanalean jarritako bideoek 32.127 ikustaldi izan dituzte aurtan, iaz baino %33 gehiago. Bideorik ikusienak ondorengoak izan dira: Tio Teronen semeak eta elektrotzaranga (2433 ik.), Hildako arrainak ibaian (1969 ik.) eta Emakumeen greba eguneko kalejira (1631 ik.).



Herritarrek zapatuko topaketan.



Parte hartzaileak taldeka.



Eneko Beretxinaga testua errezitatzen.

Suntondoan kontatutakoak

Herritarrek Euskaraldian zehar bizitakoak kontatu zizkioten elkarri zapatu goizean antzokian egin zen Batu Sutondora topaketan.

Hogeita hamarren bat herritar batu ziren joan zen zapatuan herriko euskaltzeen mugimenduak antolatu zuen topaketara. Bi ordu inguru iraun zuen saioan, hamaika egunetan bizitako esperientziak eta bizipenak elkarbanatzera.

Aipatu zen hiztunei “ahalduntzen eta konfidantza hartzen” lagundu dien ekimena izan dela, hainbatek sentitu dutela “ilusioa, poza eta harrotasuna” txapa paparrean eroanda eta ekimenak “euskaraz bizi nahi duten herritarren multzo handia bistaratzen” lagundu duela, tartean belarriprest asko. Ildo horretan, elkarriketa elebidunak

normalizatzearekin, euskal hiztunek euskarari eusteko jarrera indartu egin dela ere nabarmendu zuten. Orohar, ekimena oso modu positiboan baloratu dute herritarrek

Errezitaldia, musika eta kantua

Topaketari amaiera emateko, zuzeneko musika eskaini zuten Nagore Sanzek, bere familiako kideek, eta Eneko Beretxinagak testu errimatu bat errezitatu zuen Euskaraldiaren balorazio satirikoa eginez. Horrekin batera, bertaratutako denek Benito Lertxundiren Kimu bat zuhaitzan kantua kantatu zuten elkarrekin, Euskaraldiak ekarri duena sinbolizatuz.

Aldaketen unibertsoa

Euskaraldiak askotariko bizipenak eragin ditu ariketari heldu dioten herritarren artean (baita ingurukoaren artean ere), aldaketa txikiak, handiak, sakonak, arinak...

Eraitza hor dago, oraindik guztiz neurtu ezin dezakeguna. Izan ere, 12. egunetik aurrera eta 365 egunetan, ahobizi zein belarriprest izaten segitzea denez helburua, ez da etenik izango eta dagoeneko hurrengo edizioa lantzen dihardugu. Merezki izan duelako. / A. Unamuno

Harrera bikaina

UBANE MADEERA

ARGAZKIAK: ELI LAKUESTA, ANGEL BOLUNBURU ETA KONTRARGI

Soraluze atzo eta gaur izenburua duen argazki erakusketak herritar ugari erakarri ditu kiroldegiko erakusketa gelara. Zenbakiak argi berba egiten dute: erakusketa zabaldu zutenetik seigarren egunean dagoeneko 300 bisitari izan ditu. 54 argazkiz osatutako erakusketa da: Eli Lakuestaren eta Angel Bolunbururen artxiboetako 27 argazkitan ikus daiteke, adibidez, Txurruken apenas etxe barik, Ezozibidea ere antzera, Euskalduna fabrika, Plaza Zaharreko hiltegia, Erregetxea eraikina zutik, Mesedeetako mojen eraikina Atxurin... Eta haien gainean leku berberekoko gaur egungo argazkiak daude Kontrargiko kideen eskutik jarriak, tokiok nola aldatu diren erakusteko.

Udalerriari herri-gutuna eman zitzaioneko 675. urteurrenaren baitan antolatu dute erakusketa. Abenduaren 29ra artegongo da ikusteko aukera, honako ordutegian: astegunetan, 19:00etatik 20:30era eta zapatuetan, 12:00etatik 13:30era.





GUTUNAK

Sabin Euskal Herrira

SORALUZEKO SARE

Espainiako Barne Ministerioak jakinarazi berri du Sabin Mendizabal Plazaola soraluzetarra Valladolidetik Logroñoeko espetxera ekarriko dutela. Berria ona da; berez, Errioxako hiriburuko espetxea Valladolideko baina hurrago dagoelako, 150 kilometro ingurura, distantzia erdira.

Orain arte, Sabinengana bisitan joan diren lagun eta senideek sei orduko joan-etorria egin behar izan dute astebururo. Logroñora ekartzen dutenean, berriz, -ez dute jakinarazi noiz- hiru orduko bidaiia egin beharko dute.

Galdera da, zergatik ez dute Arabara, Zaballako gartzela berrira ekarri, bere bizilekutik hurren dagoen espetxera?

Zergatik ez dizkiote aplikatzen zigorraren hiru laurdenak beteta dituen preso bati aplikatu beharko lizkioketen onurak?

Urtarrilaren 12an, Baionako zein Bilboko kaleak beteko ditugu Sabinen eta gainerako preso guztien giza eskubideak bete daitezen eta alferrikako sufrimendu gehiago eragiten jarraitu ez dadin eskatzeko. Elkarbizitzaren, konponbidearen zein bakearen aldeko mobilizazioa izango da. Garrantzitsua da zu ere etortzea.

Datozen asteetan hiru hitzordu garrantzitsu izango ditugu.

“Motxila etorkizunez bete” erakusketa

Urtarrilaren 7tik-12ra ikusgai izango da erakusketa gelan. Gurasoak preso dituzten

haurren errealitatearen berri ematen du. Urtarrilaren 8an inauguratuko da, arratsaleko 19:00etan, musika eta luntxarekin.

Abenduaren 31n ekarretaratzea
Abenduaren 31n, arratsaldeko 19:30ean presoek eskubideen aldeko ekarretaratzea egingo da Zubi nagusian.

Urtarrilaren 12an Bilbora

Urtarrilaren 12an, “Orain presoak” lemapean, Bilbon egingo den manifestaziorako autobus-txartelak salgai daude Arrano, Bolia eta Batzoki tabernetan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

HAUSNARKETA

Gabonetako argiak kaleetan

Aurten, lehen aldiz, argiteria berezia jarri dute herriaren erdialdeko kaleetan. Bizikale Merkatari Elkarteak 5.000 euroko inbertsioa egin du argiak alokatzeko.



IDOIA ALDAZABAL
HERRITARRA

"Ba niri oso ondo iruditzen zait ideia. Gabonak gustatzen ez zaizkidan arren, argiei esker ikusten da herria alaiagoa, eta beste gauza bat. Ez du batere zerikusirik, adibidez, zela egoten den zubia argi barik eta zela dagoen orain, Gabonetako argiekin".



AINHOA IBARZABAL
BIZIKALEKO ORDEZKARIA

"Oso balorazio ona egiten dugu. Jendea pozik dago, herrian argi gehiago dagoelako eta Gabonetako giroa ipini dugulako. Argiak alokatuta daude, 5.000 euro pasatxoan. Jaurlaritzaren diru-laguntzaren bitartez egin da, barraken moduan".

ZIR(R)IKA

P.G.

ERREGETXIA TXOR TXOR TXOR...
EUSCALDUNA TXOR TXOR TXOR.MATADERO ZARRA TXOR TXOR TXOR...
ADOKINAK TXOR TXOR TXOR....ETA ZE URTETAN ESAN DESTAZU
BONBARDATU ZEBELA HERRIXA ?EZ EZ, HAU GUZTI HAU GEUK
BAKARRIK SUNTSITU DUGU

PUNTUA



ANE OSORO

Sublimea

Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, baina gehienok dugu bidaiatzea gustuko. Eguneroko bizimodutik ihesi, beste inguru batzuk bilatzen ditugu. Beharbada batzuek laneko ardurak atzean utzi eta hare txurizko hondartzetan etzatea nahiko dute. Beste batzuek nahiago izango dute mendian ibiltzea, naturarekin bat izanez, isiltasunaz eta lasaitasunaz gozatuz. Badago aspaldiko zibilizazioek utzitako eraikinen hondarrekin txundituta geratzen denik ere. Argi dago eguneroko bizimoduarekin apurtzea bilatzen dugula, oroimenean geratuko zaizkigun momentuak sortzea, erabateko lasaitasuna, lilura, sublimea. Eta askotan, gurean horrelakorik ez dagoela pentsatzen dugu, herri honek ezer berezirik ez duela. Baina, besteak beste, mendigainean badaukagu historiaurreko altxor ezkutu bat, azkenaldian agerian jartzen ari dena. Besterik ez bada, ia balioa ematen diogun, gurea egiten dugun, azken finean gure ondarea delako. Eta zaindu behar bada, denon artean zaindu dezagun, ondorengoek ere gozatu dezaten.

ARITZ ARIZAGA
HERRITARRA

Niri gustatzen zaizkit argiak. Alaitasuna ematen dute eta argi geratzen da garai ezberdin batean gaudela. Gastatuko denak arduratzen nau pixkat, baina tira. Izan liteke argiek kontsumoa piztea, baina ez nire kasuan. Iruditzen zait, usok uxtatzeko ontza bezin efektiboa.

EZOZI ARRILLAGA
HERRITARRA


"Niri ideia ona pentsatzen zait. Gabonak berez gustatu egiten zaizkidanez, Gabon giroa ematen dute argiek eta, beraz, ideia gustatu egin zait. Gainera, horretaz gain, iruditzen zait ipini dituzten argiak direla oso argi politik eta finak."

Bihurrikeria kaltegarri bihurtzen bada

Azken boladan, zenbait kontu desatsegin gertatu dira herrian: kale-altzariak apurtu eta erre dituzte, pintadak egin nonahi, eraikin publikoetan sartu baimenik gabe ... orain arte identifikatu dituzten egileak gazteak dira. Gauzak horrela, non dago bihurrikeriaren eta zerbait larriagoaren arteko muga? Halakoen aurrean zer egin beharko litzateke? Datozen lerrootan gaiaren ingurukoak aztertu nahi izan dira. Testua: **Ubane Madera**. Argazkiak: **Soraluzeko Udala eta Ubane Madera**.



Saskibaloi kanasta errotik aterata, eskolako patioan. UDALA



Eskolaren kontrako pintada, patioan. UDALA



Eskolarako alboko sarrera. UDALA

"TEILATUTIK SARTU DIRA, ETA KONTURATU BEHAR DIRA DEMASEKO ARRISKUA HARTU DUTELA"

Azken aldian bolo-bolo dabilta zenbait ume-gaztek egindako "bihurrikeriak". Halako kontuak ez dira berriak, belaunaldi guztietan gertatu izan dira. Askorendako bihurrikeriak, umekeriak dira. Beste askorendako, aldiz, gaiztakeriak dira, intentzio txarrekin egindakoak eta ondorio kaltegarriak dituztenak. Zein da, bada, muga? Zela egin behar zaie aurre halakoei? Zergatik gertatzen dira? Hainbat ikuspuntu baliatuta hausnarketa eragita da asmoa.

Azaroaren lehen asteburuan gazte batzuk Plaentxi Herri Ikastetxera sartu ziren eta psikomotrizitate gelako su-itzaigailuak hustu, pintadak egin, eta, oro har, 1.000 euroren bueltan baloratutako kalteak eragin zituzten. Gazteak identifikatuta daude, udal ordezkariak haien gurasoekin berba egin dute eta gastuak eurek ordainduko dituzte. Horretaz gain, Eskolako Kontseiluan ere landu dute gaia, Iker Aldazabal alkatearen partaidetzarekin, eta berak zera ere azpimarratu du: "Ez gara elkartu altzariak apurtu izanaren gaia mahai gaineratzeko bakarrik. Eskolara teilatutik sartu dira, eta demaseko arriskua hartu dute. Horrekin ere konturatu egin behar dira. Herri honetan, zoritxarrez, herritar batek ia bizia galdu zuen bertatik jausita".

Institutuan ere bai

Institutuan ere antzeko gertakariak jazo dira. Adibide modura, Institututik kiroldegira joanda, nesken aldagelan begira harrapatu zituzten hiru ikasle. Ordutik, giza eskubideei buruzko lan pedagogikoa egiten dihardute, ikastetxeak ipinitako neurri zuzentzaile modura.

"Kalte materialez harago begiratu behar da"

GURUTZE AGIRRE PEDAGOGOIA

Baliteke oraingo kezka betikoak izatea, baina permisibitate handia dago. Umeak ume dira, eta euren "lana" gaiztakeriak egitea da. Zer aldatu da? Ez dutela ikusten gaiztakeria noiz bilakatzen den ondorio arriskutsuak eduki ditzakeen zerbait. Arrazoa mugarik ez edukitzea izan daiteke eta mugak ipini ezean, ez dute autoritaterik onartzen. Horrez gain, gizarteak ez du lehen zeukan hezkuntza-eginkizunik, ze errespetu falta handia sumatzen da, inor ez da ausartzen inori ezer esaten, jasoko duen erantzunaren beldur delako. Bestalde, zer edo zer



FERNAN OREGI

gaizki egiten dugunean, horren ondorioa ez bazaigu gustatzen ikasi eta berriz ez dugu egiten. Baina ondorioak ez badigu kalterik egiten, kontrakoa ikasten dugu. Gizarte kontsumistan bizi gara eta umeek azkar ikasten dute oso erraz lor dezaketela

nahi dutena, beraz diruak ez du balorerik eurentzat. Agian, kalte materialez harago begiratu behar da. Bestalde, zigorrak denon onurarako ekintzaren bat izan beharko luke, kaltea denoi eragindakoa bada: kaleak, paretak... garbitu. Esan bezala, mugak ezartzea beharrezkoa da txikitatik. Baina horrek beldur handia ematen du, umeen frustrazioa dela-eta. Ez ditugu jasaten haien negarrak eta nahi dutena ematen diegu. Horren beldur handia hartu dugu eta EZ hitza ez dugun erabiltzen. Berandu izan arren, mugak garbi ezartzea ezinbestekoa da gizartearen onurarako. Denona dena denon artean babestu beharra berreskuratu behar da, eta ez utzi erantzukizun hori autoritateengan bakarrik.

"ARRISKU HANDIA HARTZEN DUTE, ADIBIDEZ, ESKOLAKO TEILATUTIK SARTZEAN, TXAPA FINA DA-ETA"

Gainera, Institutuaren sarreran kamera ipini behar izan dute, ikastetxeko atea astelehenero agertzen zelako trabatuta: zotz pusketekin, txiklearekin, kolarekin... Eta Institutuko kanpoko aldean, frontoia ere, ez dago bihurrikerietatik salbu. Izan ere, haurreskolara sartu eta bertako hainbat jostailu eraman zituzten uda aurretik; pilotalekuko txapa lekutik aterata dago eta zer esan igogailuaren egoera higuin garriaz... Frontoiko futbol-gunerako, berriz, metalezko porteriak ipintzeko aukera aztertzen dabil Udala, oraingo porterien sareak apurtu egiten dituztelako behin eta berriro eta haiek berritzeko dirua xahutzen ibiltzeaz aspertu direlako.

Kiroldegitik behera denetik bota

Bestalde, Arane kiroldegiaren gaineko aldean ere gogoko du hainbatek aldrebeskerietarako. Adibidez, azaroko azken astean bi metro luze zen taula bat jaurti zuten paseora. Ez zuen inor harrapatu, baina behean ume-kotxeak zeuden, eta herritarrak paseoan. Gainera, bestelako kalteak ere askotan eragin dituzte inguru horretan: margoa bota dute, paseoan zebilen emakumea zikinduz, jarlekuak eta ura bota. Eta baita txiza egin ere. Horrez aparte, kiroldegi gainean, gaztelekuko paretetan pintadak sarri egin dituzte, eta inguruko altzariak apurtu.

Aipatutako hiru gune horietan eragin dituzte, besteak beste, kalteak azken aldian. Gehiago ere badaude. Eta bizilagun askoren artean kalean komentatzen den gaia da errespetu falta gero eta gehiago sumatzen dela kalean. Bada halakoan aurrean, isunez aparte, bestelako ondorioak egon beharko lirakeela dioenik ere.

"Errespetu falta handiagoa bada, akaso"

GOTZON ODRIOZOLA UDALTZAINBURUA

Beti egon dira halakoak. Baina oraingoan gertatu dira hiruzpalau kontu eta denak batera. Ematen du gauza asko izan direla, baina urtea osotasunean begiratu, ez dira horrenbeste izan. Ez dugu ikusten dagoenik alarma sozialik eragiteko moduko egoerarik.

Akaso errespetu falta da, batez ere, dagoena. Bai gazteen aldetik, eta baita gurasoen aldetik ere.

Guk halakoetan egiten duguna da kalte gehien jasaten duten guneetatik sarriago pasatu: kiroldegitik, eskolatik, frontoitik... baina ezin gara



UBANE MADERA

leku guztietan aldi berean egon. Gainera, gurasoeekin batzartzen gara eta ahalegintzen gara kontua konpontzen. Kalteak baldin badaude, adinez txikikoak direnez, gurasoek ordaindu behar dituzte. Hortik aurrera,

gurasoek eurek ikusi beharko dute bestelako ondorioak izan behar ote duen seme-alabek egindakoak. Hori bai, batzuetan arrisku handia hartzen dute, adibidez, eskolako teilatutik sartzean. Txapa fina da hura, eta apurtzeko ez da ezer behar. Horrekin badugu esperientzia herri honetan. Bestalde, kiroldegitik oholtzak-eta botatzen dituztenak jabetu behar dira norbaiti gainera jausten bazaio, ea zer!

Edozelan ere, gu ez gara epaileak. Lehen Udalak halako kasuetan ezartzen zituen bestelako zigor batzuk: egindakoa garbitzea... baina laga egin genuen egiteari, ze ez dakigu juridikoki legezkoa den.

Irtenbidea familiekin landu behar da

Horrelako gaietan aditua den Gurutze Agirre pedagogoak azpimarratu du, besteak beste, gaia aztertzean, halakoak egiteko arrazioak ere kontuan hartu beharko liratekeela: "Baldarkeria bat pasatzen denean, erruduna bilatzen da eta zigorra ipini, baina sarritan pasatzen bada, ohartu behar gara zigorrak ez duela balio. Eta beste irtenbide batzuk bilatu beharko dira. Adibidez, aztertu ea zergatik egiten duten; zein den helburua... Agian ez dute herrian gustuko ezer euren aisialdia betetzeko, edo arreta eman nahian ari dira; hortaz, irtenbidea familiekin landu beharko litzateke eta herri-mailan gazte horiendako bestelako irtenbideren bat landu (...) Mehatxuarekin hezten ditugu seme-alabak gaur egun, eta ez ondorioekin, beraz gaurko ume eta gazteek garbi dute mehatxuek ez dutela ezertarako balio. "Munizipalei deituko diet" esaten diegunean barre egiten dute! Etxean ikasi dutelako edo beti entzun dutelako: "Ez baduzu hau egiten beste hau kenduko dizut" baina hori ez da inoiz gertatzen".

"AGIAN EZ DUTE GUSTUKO EZER EUREN AISIALDIA BETETZEKO EDO ARRETA EMATEN ARI DIRA"

Atxolin Guraso Elkarteko kidea

Inguru naturala, materiala eta pertsonala, baloreak, etxeko hezkuntzatik dakarzkigu. Hori bateragarri izan daiteke hezkuntza akademikotik aparteko hezkuntza sozialarekin. Beti ere denonganako errespetuarekin. Bestalde, eragiten diren kalteak izan daitezke materialak, fisikoak edo psikologikoak. Materialak diruarekin konpontzen dira, baina



Ainhoa Zubizarreta. U.M.

horrek gazteengan ez du apenas eraginik; batzuei euren dirutik ordainaraziko diete; beste batzuei gurasoek ordainduko diete. Nire ustez beste ondorio batzuk ere izan beharko lirateke: gazteek eurek apurtutakoa konpondu. Eskolara sartzean, gainera, min fisiko handia hartzeko arriskua dute, nik neure azalean pairatu nuen. Min psikologikoa eragiten badute, berriz, guraso hezitzaileek eta eskolakoek lanketa sakonagoa egin beharko lukete.

Keixeta Guraso Elkarteko kidea

Kalteak eragiten dituztenei isunak ipintzeaz aparte, bestelako ondorioak ere ezarri beharko litzaiekete, ez baitituzte kalte fisikoak bakarrik egin, psikologikoak ere bai, "zoritxarrez"; zerbait lotsa pasa dezaten, ze akaso horrela ez dute egindakoa errepikatuko. Gainera, neurririk hartu ezean jarrera horiek errepikatu egiten dira. Ez dakit gogortu egiten




Nuria Muro. U.M.

diren, baina ugaritzen direla begibistan dago. Uste dut ere, erantzukizuna izan beharko genukeela gurasoek, jabetu gaitzen gauza guztiak ez direla ume kontuak. Batzuk bai, baina beste batzuk kontu serioagoak dira. Gurasoek egundoko lana dugu, eta ez da erraza seme-alabak heztea. Baina era berean, Keixetako kide bezala, orain bildur pixka bat badut ere zerbait antolatzean (eski irteera), gerta daitekeenarengatik.



Sorako jokalariek iazko Gabonetako torneoan.



Korrikalariak Urban Trailen.

Futbol-eskolako torneoa indartsu

Iaz baino futbolari gehiagok eta herri gehiagotakoek parte hartuko dute Soraluze F.T.ko eskolaren Gabonetako Futbol Eskolako Torneoan.

Abenduaren 29an, 09:15ean hasi eta 18:30ak arte jokatuko dituzte partiduak Ezoziko futbol-zelaian, eta, ondoren, 19:00-19:30ean egingo dute sari banaketa, kiroldegian. Hain justu, 8-11 urte bitarteko 400 bat futbolari, haien entrenatzaileak eta teknikariak ekarriko ditu Sorako futbol-eskolak Gabonetako topaketara. Guztira, 26 talde, horietatik bost Soraluzekoak.

Sorako futbol-eskolakoek honakoa azaldu digute: 09:15ean elkarren kontra jokatuko dute; horren arabera egingo da sailkapena arratsaldeko partiduetarako. 14:15-14:30ean hasiko dira final-laurdenak, 18:00etan benjaminen finalak, 18:30ean alebinenak eta 19:00etan sari banaketa. Bazkariak, berriz, kiroldegiko frontoian emango ditugu, txandaka. Eta sari banaketa ere, akaso, bi txandatan

egin beharko dugu, kiroldegiko aforoaren arabera. Ze iaz guraso mordoak etorri ziren.

Bisitari izango dira Bilbotik, Donostialdetik, Legazpitik, Bergaratik eta Eibartik etorritako taldeak, besteak beste; guztira, 16 herritatik etorritakoak.

Autobusa gora eta behera

Bestalde, futbol-zelairako autobusa ibiliko da 08:30etik 14:30ak arte, eta 13:00etatik 19:30ak arte. Ezozibideko biribilgunean izango du gerezalea eta edozeinek erabili ahalko du, baina hori bai, "lehentasuna umeek izango dute, partiduak eurek jokatzen dituzte-eta", hori azpimarratu dute Sorako ordezkariak. Eskatu dute antolaketako laguntzaileen esanak errespetatzeko, "ez gara profesionalak eta ez dugu arazorik sortzerik nahi".

San Silvestre ez lehiakorra, urtea kirola eginez amaitzeko

Abenduaren 31n San Silvestre lasterketa ez lehiakorra izango da, Soraluze, Mugituz! topagunearen eskutik. 11:00etan Zubi Nagusitik abiatu eta lau kilometroko ibilbidea egingo dute: Gila Zubia-Kalebarren-Gabolatseko zubia-Baltegiatiko pasealekua-Gilako zubia (700 metro horiek bost bider), ondoren Santa Anako zubira, eta Atxuritik gora eginez, Mesedeetako egoitzan bukatuko da. Han salda beroa eta txorizoa hartuko dute parte-hartzaileak, egoitzan prestatutakoak. Gainera, opariak zozkatuko dituzte lasterkarien artean. Egoitzan bukatzeko arrazoia da hango egoiliarrek herritarrengana gerturatzeko helburua partekatuta, horretan laguntzeko elkarlanean dabiltzala Mesedeetako egoitzako eta Soraluze, Mugituz! topaguneko ordezkariak.

Adin guztietako korrikalariak zuzenduta dago eta izena kiroldegian eman behar da.



Etxabe Harategia

- Etxara eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeako baseanetik produktuak
- Etxeko iripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 23 75

KLB6

Kalebarren 6
943 07 31 28
kalebarren6@reunion.com

Alpa Jarna
MILANO
SOLID
VERO MODA



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Etxeko tritxoak
Souflera

Tel.: 943 75 10 02



Mimar


Ilargipaindegia
Estetika
Solariuma

Gabrielgo 6, Arboa
Tel.: 943 75 15 11 - 682 51 14 04



TATTOO INBIRU ESTUDIO ARTISTIKOA

Barrioletze 16, SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel.: 47725403 www.ajibretatattoo.com



ARRANO taberna

Etxari eta gaztu
etxeko pintxoak

Etxaburueta 5
Telefonoa: 943 75 24 09



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zura-gentako hartz klinika,
puntu-puntu teknologikoa lan
egiten du. Cal-Cam sistema
bertikalki erabiltzen du.

Elizburu, 3 behea
SORALUZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe@hotmail.com

Ordutegia:
Astelehenerdik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



Jatorren plazarra, bertatik bertara

Batzoki

eguneko menua
asteburuetan
karta eta txistorak

ogietarriak eta
hamburgeriak
enkargu bereziak

Sendak eta
lagun arriak
bertikalki

Erretxak: 943 75 30 35



MENDIZABAL okindegia

Ogi - Prentsa - Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00
Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99



Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgeriak,
ogietarriak,
razoiak,
pizzaak,
gosaia...

Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 17 88



Carpinteria MANU Aroztegia

Ateak
Bontarriak
Portarriak
Sukaldeak
Txitxoak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8, barrena - Mug. 636 05 81 25



BOLIA TABERNA

Pitxoak, ardiak,
korbinatuak
Gazte-giriko festa



Belarrak Lorandena eta belarandena

Loreak, etiketa ekologiko
eta osasungarriak,
kosmetika eta etxeko
garbitzeko produktu
ekologikoak

Etxera eramateko zerbizua
Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11



TXURRUKA JATETXEA

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetako menu berezia
Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



Euskalzaletasunaren alde:





Olentzero eta Mari Dominginen etorrera prestatzen diharduten herritarrek. F. OREGI.

Ibaia hartu dute gaitzat

Ibaia eta bere historia izan da aurten Plaza Barriko etxola girotzeko aukeratu duten gaia.

Pil-pileaneko eta Kukumixoko kideek urtero baliatzen dute Olentzero eta Mari Domingiren etxola “istorio bat” eta “balore batzuk” transmititzeko. Aurten, ibaiaren inguruko historia

aukeratu dute gai moduan: “Alkarrekineko lan-taldeak bilketa lan ederra egin du eta uste dugu garrantzitsua dela gaztetxoenei ibaia garbi zegoeneko kontuak

Ibaiaren dokumentala urtarrilaren 10ean proiektatuko dute berriz

Plazentziatarren Ibaixa, garbi zegoeneko testigantzak dokumentala proiektatuko dute, berriz, urtarrilaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan, antzokian. Estrainekoz, uztailean proiektatu zuten, baina lehen proiektziora joaterik izan ez zuten hainbat herritarrek eskatuta, berriz proiektatzea erabaki dute.

Dokumentala, Hezkuntza Proiektuak ere baliatuko du ikasleekin lantzeko.

DVDan ere eskuragai

Dokumentala DVDan eskuratzeko aukera izango da. Ehun ale prestatu dituzte eta proiektzioaren egunean bertan banatuko dituzte bertaraten diren lagunen artean.

transmititzea: txanela, arrantza, hiztegia, jolasak... Gure intentzioa da etxolara hurreratzen denari aitzakia eskaintzea horretaz berba egiteko”.

24an, kalejira

Abenduaren 24an, goizeko 11:30ean harrera egingo diete Olentzero eta Mari Domingini udaletxe parean. Ondoren, Leire Elizbururen idi pareia izango dute zain, Arkaitz Aranek Zeanuritik ekarriko duen burdi ederraren gainean kalejira abiatzeko. Bidean, gabon-kanta berriak ere abestuko dituzte: Olentzero ta astoa, Mari Domingi... Amaitzeko, kiroldegian gutunak jaso eta opariak banatuko dituzte.

Laguntzaileei eskerrak

Antolaketan dihardutenek eskerrak eman nahi dizkiete modu batera edo bestera muntaia lanetan eta kalejiran laguntzen duten guztiei: “brigadako langileei, arotzari, elektrizistei, iturginari, baserritarrei, belardendakoei, gurasoei, irakasleei...”.



Olako osina, Jesus Txurrukaren grabatuan.

TXURITXU GOZOTEGIA
 Astefeneetik ostalera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30
 Larunbatak: 08:30-13:30
 Igandeak: 08:30-14:30



Gosariak, ogia, premia, pastelak, bonoiak...
 Ezerra eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

sutarako egurra salgai
 pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

Mug. 635 71 34 08



AURREZTU ENERGIA



Berota ura eguzki lepeakin edo airearekin

fontaneria
San Andres
 Iturgintza

629 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

ION MURGIZU BAKAIKOA
PINTOREA



amanta dekorazionala industriala

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30

Kontulan 

aholkularitza
A BOKATUAK

Errenta, aitorpenak • Administrazio lanak
 Trafikoa burularitza • Lan-erlako aholkularitza
 Enpresen kontabilitate/leialtzeak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 • 1. eta. 20190 Sorbeze
 Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Soralezeko
Kooperatiba Elkarteak
 150enak zabalak



Arraindegia, janaria, erropak, etxeko tresnak, ezerra eramateko zerbitzua

Kalebarria 4
 Tel. 943 75 13 45

Astefeneetik ostalera: 08:30 - 12:30 eta 12:00 - 19:45
 Larunbatak: 08:30 - 13:00

KM design

Kira • Muntaiak

943 76 09 85

karuntxotokak@yahoo.es
 www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3
 BERGARA

- Diseinueta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ornamenduak
- Logelak
- Zonak
- Aloak...

- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

MORRUTU PLAZA - 943 75 24 40

Azala trankila
 Ezerra eramateko zerbitzua
 Eskuzkoak hartzen ditugu



Fanny Mertzeria

Arropak konpontzen ditugu
 Santa Ana 22, beheko • 688 81 53 92



IZZUGUIRRE
 Igelberritza




Eraikin berriak • Kalitatezko emailza
 Erreforma • Era guztietako igelberritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 289

GARBIKETAK

Portalak • Ofizinak
 Lokalak • Etxeak

Mug. 649 381 400



Hortz klinika

27 urteko esperientzia

Izker Alamo
 Muelle de San Mateo 4, 2. 48100 SAN MATEO

Katxo Guñe
 C/Alameda 1, 2. 48100 SAN MATEO

Enbil 1 - Tel. 943 75 30 13

Min: gabezo anekia, odontologia orokoa, primer berrak eta mugimendu, ortodontia, ortopedia, ortofonia, implantak, estetikak...



iratxo 

Tel.: 943 75 13 20
 E-posta: iratxosoraluze@gmail.com

Eta orain... KOPISTEGI ZERBITZUA ere bai:

Fotokopiak, inpresioa koloretan, papel fotografikoa, plastifikazioa, enkuademazioa...



Sabin Elizburu Muniozguren



Sabin Elizburu Muniozguren (Soraluze, 1956) 16 urterekin izan zen lehen aldiz Milanen, 1972an. Iparrameriketara 5 urtez ibili zen pilotari (zesta-puntalari), eta Milanen bizi da 1992az geroztik.

Zela iritsi ziren Milanera?

15 urterekin Zaragozara joan ondoren, honako ibilbidea egin dut: Zaragoza-Milan-Daytona-Melbourne (Florida)-Bartzelona-Milan- Orlando- Tallahassee eta Milan. Ia 39 urte bete arte lortu nuen pilotan segitzea. Ez nuen lesiorik izan, eta gorputzak eutsi egin zidan. Zortea izan nuen eta ahalegina ere egin nuen.

Orain taberna duzu Milanen.

Bai, Taberna Vasca Jai Alai. Pilotan nembilela, FER-en ordezkari ere banintzen eta Danobat eta Mondragon Taldeko enpresa batzuetakoak ere bai. Gero Italiako enpresa batek komertzial hartu ninduen eta 6-7 urtez horretan ibili ondoren, Gernikako nire lagun batzuek

taberna zuten eta bazkide sartzeko eskatu zidaten. Orain dela 16 urte hor sartu nintzen eta hor gabiltza. Jose Torres (El Gallego) eta Josu Etxaniz ziren bazkideak. Orain Josuren emaztea eta neu geratzen gara, beste biak hil egin ziren-eta.

Soraluze gertutik jarraitzen duzu.

Soraluze bihotzean dago. Plazentxiatarra naiz. Lagunik handiena, Juan Manuel Arruabarrena Soraluzen bizi da. Eta semeak kuadrilla dauka hor. **Euskara ere ondo gordeta duzu.** Ahal dudan guztietan euskaraz egiten dut. Amak erakutsitako hizkuntza mantendu egin behar dugu.

Buelatuko zinateke Soraluzera?

Milan asko maite dut. Ondo bizi naiz eta herri ona da. Baina hilabete batzuk hor eta beste batzuk hemen, oso gustura egingo nituzke. Soraluzen nagoenean, umea zapata berriekin moduan egoten naiz.

1. Sabin Elizburu jabetxean.
2. Sabin, Simone eta Julen Elizburu.
3. Sabin Elizburu zesta puntalari.
4. Cloe lobarekin eta Fulvia emaztearekin.

Edurtza tabernako txanpi mitiko eta tipikoak

Edurtza tabernan bazituzten jaki gozo askoak, Maria Luisa Portales bertako ugazaba eta sukaldari izan zen sasoiari. 1983.-2000. urte bitartean jardun zuen, 17 urtez, hain zuzen ere.

Antzinako zaporea

Jaki horietako bat ziren txanpinoiak saltsan. Askok eskatzen zituzten, eta bereziak zirela irizten zioten. Hala, eta herritar baten eskariz, Gabonen aitzakian, plater-kazolatxo

haren errezeta konpartitzeko eskatu diogu Maria Luisa Portalesi, "antzinako zapore" gozo haiek gogoratze aldera.

Bi bider pentsatu barik, gustura asko, helarazi digu errezeta.



Edurtza tabernako txanpiak

Osagaiak (4 lagunendako)

- Txanpiak, 1 kg
- Kipulak, 2
- Berakatz haginak, 4
- Gatza
- Kayena, ½
- Ur edalontzi erdi olio
- Ur edalontzi bat ardo txuri
- Ur edalontzi bat eta erdi ur

Prestaketa

- 1. Txanpiak garbitu eta lapiko sakon batean sartu.
- 2. Zartagin batean kipula txikituta (juliana erara), olio eta berakatz txikituta bota, eta, kipula gorritzen denean, ardo txuria, gatza eta kayena bota. Sutan laga bost minutu, eta, gero, dena batidoran txikitu ondoren, txanpien lapikora saltsa bota eta ura gehitu.
- 3. Sutan ipini eta irakiten hasten denean, su motelean laga bi ordu eta erdi.

Zailtasuna: ● ● ● ●

Plazentziatarra, ba ote?

COLÓN VIZCAÍNO LIBURUA 1936. URTEAN ARGITARATU ZEN SALAMANCAN.

A. MAIZTEGI - J.C. ASTIAZARAN

SORAPEDIAKO KIDEAK

Colón vizcaino liburuak dio Cristobal Colón euskalduna zela, Soraluzean jaiotakoa.

1441ean jaio omen zen Irure auzoko Salonazpi baserrian. Bataioa, berriz, herriko Andre Mariaren elizan jaso omen zuen. Egun horretan, euskal santutegiaren izendegiak agindu bezala, Cristobal jarri zioten izena: Cristobal Maistegui Larriategui Salogoen Lascurain.

Bere aita, Domingo, jauntxoaren gerratan nabarmendu zen bortizkeriaz eta krudelkeriaz jardun zuelako; eta, jauntxoaren gerrak amaitu zirenean, gizona hil egin zuten, Elorrioko elizatik irtetzera zioala.

Emazteak desohoretzat hartu zuen gertaera hori eta seme-alabei eskatu zien ez emateko euren jatorriaren berri. Arrazoi horregatik, Maiztegi abizena laga eta gaztelarazko Colon abizena hartu zuen ordezkot moduan (maizter = colono erdaraz).

Argudioak

Egileak banan bana ezeztatzen ditu Cristobal Colónen jatorriari buruzko gainerako teoria guztiak. Bakarra onartzen du, berea, Colón Gipuzkoako Placenciakoa zela zioena, eta ez Lombardiako Piazenzakoa,



Saloz Azpi baserria gaur egun, bere armarrak eta guzti. SORAPEDIA

Pedro Martin de Anghierak zioen moduan.

Vargasek lau elementu erabiltzen ditu bere tesia arrazoitzeko: abizenen esanahia, Ameriketara erabilitako leku-izenak (ikus Liburuaren perlak atala), armarrak edo blasoiak, eta testamentua.

Aitzolen iritzia

José de Ariztimuño Olaso Aitzol apaiz ezagunak ere izan zuen liburuaren berri, eta 1936ko uztailaren 9an El Día

MAIZTEGI ABIZENA LAGA ETA GAZTELERAZKO COLON ABIZENA HARTU ZUEN ORDEZKO MODUAN



Paco Vargas. SORAPEDIA

Egilea

Liburuaren egilea Francisco Meléndez y Polo izan zen, baina Paco Vargas gaitzizentarekin sinatu zuen; inoiz, El Hidalgo de Soraluze moduan ere bai. Gil Meléndez Vargas zuen aita, Soraluzeko La Euscalduna fabrikako zuzendaria izan zena bigarren karlistadaren aurretik.

egunkarian idatzi zuen artikulua (Sorapedian dago irakurgai). Haren iritziz, liburuan zenbait argudio eztabaidagarri jasotzen badira ere, beste edozein tesirenak bezainbesteko arreta merezi dute.

Gerra ostean erre egin zituzten liburuaren ale asko

Liburuaren tonua oso abertzalea da, gerra aurreko urteetako beste liburu batzuen antzera, baina, aldi berean, Espainiarzalea ere bada. Zoritxarrez, gerra zela eta, liburu honek ez zuen merezi zuen besteko zabalpenik izan. Garaiko liburu jabe batek azaldu zuenez, gerra ostean erre egin zituzten ale asko eta asko, badaezpadako neurri modura.

Informazio gehiago

Gaiari buruz informazio gehiago bilatzeko, edota Colón vizcaíno liburu elektronikoa (epub zein mobi formatuan) deskargatu nahi izanez gero, jo www.sorapedia.eus-era.

Gainera, Sorapedian Soraluzeri buruzko 800 sarrera baino gehiago topatuko dituzu, 1800 fitxategitik gora: artikulua, herri-abestiak, ibilbideak, kaleak, auzoak, artea, historia, armagintza... eta informazioa haziz doa egunetik egunera.

Sorapedia Soraluzeko entziklopedia digitala da.

Liburuko zenbait "perla"

Ameriketarako bidaian hainbat euskal berba erabili zituen. Lehen itsasontziari Mari-Galanta deitu zion, handia eta trinkoa zelako, eta marinela oldartu zitzaizkionean, macalas deitu zien.

Colonek berarekin eroan zituen marinela gehienak euskaldunak ziren, eta euren artean euzkaraz aritzen eiziren. Bigarren bidaian, marineletako bi behintzat soraluzetarrak omen ziren: Martín de Placencia eta Martín Pérez de Ugarte.

Marinelek Ameriketako lurra ikusi zutenean oihukatu zutenaren berri ere ematen du:

...eta goizaldean... talaian zegoen mariñel batek besteari AITIÇ! oihu egin zion, eta bigarrenak ENE! erantzun. Eta orduan Almiranteak LURRA! oihu egin zuen. Konturatu zenean oihua bere jatorria salatzen zuela, ¡TIERRA! Zuzendu omen zuen. Horra hor mundu berrian euskaraz esan ziren aurreneko berbak.

Hainbat leku eta irlari euskarazko izena jarri zien: Haití (Aitiç! gogoratu), Jamaica = hamaika, La Habana = labana, Lucayas = Lur + kaioak, Bahama = Badá ama, Amona, Aitona, Aldamenian, Sasoyá...

Paco Vargasek dio bere argudioak direla "erabakiorrak eta ez indizio emaleak". Gainerako teoria guztiak ezeztatzen ditu: italianoenak, portugaldarrenak, katalanenak, gailegoenak, extremeñoenak... Eta gainera, bestelako teoriaren aurrean ondorengo sententzia ematen du: "ez dute beste barbarik merezi, 'txotxoloak' baino".



Colon Vizcaino liburuaren azala.



Cristobal Colonen erretratu.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Malen, Joanes eta Aitor Ugalde
Abenduaren 18 eta 19an, 10 eta 7 urte Zorionak hirukote! Maite zaitxuztegu. Segi gure bihotzak alaitzen! Etxekoak.



Iosune eta Ilargi
Abenduan 17an eta 24an. Zorionak bikote! musu handi bana! Familia guztiaren partetik.



Ikerne Martin
Abenduaren 2an, 4 urte. Zorionak!! Etxekoan partez.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

605 706 086


(deitu edo bidali whatsapp-a)

aldizkaria@pilpilean.eus

JAIOPERRIAK



Edurne Martin
Abenduaren 9an jaio zen.



Inar Murguzur Gabilondo
Abenduaren 5ean, jaio zen.




Irai Perez Blanco
Azaroaren 20an jaio zen.

IRAGARKI LABURRAK



Katua emango nuke
Katakume bat emango nuke.
Tel. 617 560 307 (Pablo).



Katua emango genuke
Katakume bat emango genuke.
Tel. 699 868 729 (Ubane).

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak
Eider Moreno Molina

Jaiotakoak
Inar Murguzur Gabilondo
Edurne Martin Cuenca

ESKELAK

IV. URTEURRENA

**Jose Luis
Ariznabarreta Aizpiri**



2014ko abenduaren 18an hil zen.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.

Etxeakoak

OROITZA

**Eider
Moreno Molina**



Abenduaren 6an zendu zen, 28 urterekin.

Bat egiten dugu zuen saminarekin.
Jaso ezazue gure doluminik sentikorrena.

Plaentxi HLHIko ikasle, irakasle eta gurasoak.

OROITZA

**Eider
Moreno Molina**



Abenduaren 6an zendu zen, 28 urterekin.

Elkarrekin bizitako momentu guztiengaitxik
beti izango zaitxugu goguan

Zure gelakide eta lagunak

OROITZA

**Eider
Moreno Molina**



Abenduaren 6an zendu zen, 28 urterekin.

“Eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.”

Ainararen eskolako lagunak eta gurasoak.

KALE ANIMAZIOA: LOS DUENDES DE LA VERDAD



ABENDUAK
22
17:30 - 19:30

Ikuskizunen zikloa Eibarko kaleetan zehar. Publikoak goza dezan da helburua eta horretarako hainbat motatako kale ikuskizunek entretenimendu, dibertsio eta parte hartzeko giroa sortzen dute.

ANTZERKIA: PINOCHO GLU GLU



ABENDUAK 26
17:00
Coliseo Antzokia

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntutzat hartuta, Glu-Gluc Pinotxo dakar eszenatokira. Familia osoarentzako antzezlan da, ikasketatik komediara, antzerkitik musikalera eta dantzatik jolasera...

5€

KONTZERTUA: MIKE OLDFIELD TUBULAR TRIBUTE



ABENDUAK 27
21:00
Coliseo Antzokia

Oldfielden zuzeneko klasiko batzuk jotzen dituen eta bere diskografian ezinbestekoak diren kantauk errepasatzen dituen talde asturiar berria da "Tubular Tribute".

20€

14€
Coliseoaren laguntzarekin

ZINE EMANALDIAK COLISEOAN



ABENDU
OSOAN ZEHAR
Coliseo Antzokia

- La sociedad literaria y el pastel piel de patata
- Superlópez
- El Grinch
- Aquaman
- Ralph rompe Internet
- ... ETA GEHIAGO

Coliseoaren laguntzarekin
%30